Termino baliagarri batzuk

AKTIBOA
Enpresa batek dauzkan edo titularra den eskubide, baliabide eta ondasun ukigai zein ukiezinen multzoa. Aktiboko elementu guztiak sarrerak sortarazteko eta mozkinak erdiesteko erabiltzen dira. Likideziaren edo aktibo likido bihurtzeko erraztasunaren arabera sailkatzen dira. Lursailak, eraikinak, bulegoak, makineria, ekipoak, altzariak, finantza- edo enpresa-inbertsioak, kobratzeko zorrak, eskudirua eta beste hainbat aktibo likido lirateke enpresa-aktiboak.

ATZERALDIA
Egoera honetan BPG hazkunde negatiboa nozitzen ari da bi edo hiru hiruhileko jarraitutan zehar.

BARNE PRODUKTU GORDINA (BPG)
Herrialde batean eta epe jakin batean (urtebetean, eskuarki) ondasun eta zerbitzuen ekoizpen osoak duen moneta-balioa. Barne Produktu Gordinaren bitartez epe jakin horretan ekoitzitako jarduera ekonomikoa kalkulatzen da: horren bilakaerak adieraziko du ekonomia hazten edo murrizten ari den. Bertan ez dira aintzat hartzen hainbat faktore, hala nola etxeko lana.

DEPRESIOA
Atzeraldi edo geldialdi luzea, hots, ekonomian hazkunderik ez edo hazkunde negatiboa gertatzen denean.

DESLOKALIZAZIOA
Fenomeno hori globalizazio ekonomikoaren prozesuarekin loturik dator eta ekoizpen prozesuaren parte batzuk edo enpresa-jardueraren hainbat fase enpresak jatorria zuen herrialdetik kanpora ateratzea da. Eskuarki, enpresa multinazional edo trasnazionalek praktikatzen dute deslokalizazioa eta honen helburua, atzerriko lan edo ingurugiro alorretako legeriek (besteak beste) eskaintzen dituzten eta enpresarentzat mesedegarri diren baldintzak aprobetxatzea da, horri esker, enpresak aurre egin beharreko kostuak jaitsi egingo direlako.

DEZELERAZIOA
Barne produktu gordina hazteko erritmoa mantsotzen den egoera, nahiz hazkunde positiboa gertatzen ari den.

ESPEKULAZIOA
Ondasunen edo aktiboen salerosketa, merkatuko prezioak izan ditzakeen igoerez baliatzea helburu bakarra izaki. Egoera jakin batzuetan prezioen igoera bermatua dago eta bada jarduera horretan aritzeko funts dudagabea.

FUSIOA
Lehenago independenteak ziren enpresa bi edo gehiagoren bat egite ekonomikoa; horren emaitza, enpresa edo organismo bakarra sortzea izango da. Eskuarki, alderdien borondatez gorpuzten den prozesu horrek enpresen aktibo eta pasiboen konbinazioa ondorioztatzen du. Badira fusio bertikalak (bi enpresen harremana hornitzaile eta bezeroaren artekoa denean) eta fusio horizontalak (ondasun mota berbera hornitzen zuten bi enpresen arteko konbinazioa denean).

GELDIALDIA
Egoera horretan barne produktu gordinaren hazkunderik ez dago edo hutsaren hurrena da.

Globalizazio ekonomikoa, tokiko ekonomiak merkatuko ekonomia global bakarrean integratzeari deritzo, nazioarteko eskalan egituratutako ekoizpen, banaketa eta kontsumo-moduen bitartez bereziki, herrialdeen arteko mugez gaindiko ondasun, zerbitzu, kapital, lan-esku, teknologia, ezagutza eta antzekoen mugimenduen bidez.

GLOBALIZAZIOA
Izaera ekonomiko, sozial eta kulturaleko prozesu historiko horretan, nazioarte mailan, herrialdeek geroz eta elkarren arteko lotura eta mendekotasun gradu handiagoa dute.

INFLAZIOA
Ekonomia jakin batean prezioen maila orokorra jarraiki altxatzea; bestela adierazteko, egoera horretan, ondasun eta zerbitzuen prezio gehienak batera hasten dira hazten. Alderantzizko prozesua deflazioa da.

INTERES TASA
Finantza-merkatuan diruak duen prezioa. Norbaitek, dirua maileguan eskatzen badu ordaintzen duen edo, dirua uzten edo (bankuan, adibidez) gordailatzen badu, jasotzen duen prezioa. Jasoriko edo mailegaturiko diruaren portzentaje gisa adierazi ohi da eta finkoa edo aldakorra izan daiteke: finkoa izateak esan nahi du tasa berbera aplikatuko dela zorrak edo gordailuak irauten duen bitartean; aldakorra izateak esan nahi du kasuan kasuko banku zentralak ezartzen duen tasa aplikatuko dela une bakoitzean.
Kapital produktiboan dautzan elementuetako batzuk kapital ez-produktiboko elementuak izan daitezke, ondasun edo zerbitzuak ekoizteko erabiltzen ez direnean. Adiera horretan, ondasun higiezinak, ibilgailuak eta gainerakoak kapital ez-produktiboko elementutzat joko dira jabe den pertsonak erabiltzekoak direnean, ekoizpen jarduera batean baliatzekoak ez direnean, alegia.

KAPITALA (PRODUKZIOKOA)
Produkzio-faktore honetan, ekoizpen prozesuan baliatzen diren aktibo edo baliabide multzo bat sartzen da. Kapitala fisikoa izan daiteke (eraikinak, fabrika, makineria, tresneria, ibilgailuak...), dirua edo moneta, finantzak... segun-eta nolako egoeran dagoen. Hori aldatu egin daiteke, adibidez, ekoizpen-jarduera jakin batean hasteko helburuz, eraikina, makinak eta gainerakoak erosteko hasierako diruzko kapital bat erabiltzen denean; kasu horretan kapital fisiko

bihurtuko lirateke. Kapitala, era berean, industriala, merkataritzakoa... izan daiteke, segun-eta ekoizpen, banakuntza eta merkaturatze prozesuko zein fasetan dagoen.

KAPITAL-ONDASUNAK

Produkzio prozesua jarraitzea xede duten ondasun hauek beste ondasun batzuk ekoizteko baliatzen dira. Bertan sartzen dira fabrikak, eraikinak, makineria eta tresneria.

KEYNESIANISMOA

Teoria ekonomiko honen oinarria John Mayrard Keynes (1883 – 1946) ekonomialariaren ideiak dira, 1929 urtean Burtsak porrot egin eta hirugarren hamarkadan gertaturiko depresioaren ondorioz loratu zirenak. Korronte horren arabera, bai kontsumo-ondasunen, bai kapital-ondasunen (inbertsioaren) demanda funtsezko faktorea da, ekonomiaren jardueraren gradua adierazten duena. Kontsumo-ondasunen demanda soldaten araberakoa denez eta kapital-ondasunen demanda mozkinen igurikien arabera aldatzen denez, ekonomiak berak bakarrik ez luke bermatuko eragileek nahiko luketen jarduera ekonomikoaren maila automatikoki erdiestea, gerta litezkeen koiunturek krisi ekonomikoak ekar litzaketelako. Teoria horrek, beraz, Estatuak ekonomian erregulatze eta esku-hartze zereginak betetzea egokia izan zitekeela determinatu zuen, demanda erantsiak, gutxieneko inflazio batean, erabateko enplegu mailetan iraungo bazuen: horiexek ziren ekonomiaren martxa egokiaren erreferentziak.

LIKIDEZIA

Aktiboek, balioaren galerarik izan gabe, berehala esku-diru bihurtzeko duten ezaugarria. Aktibo likidoa diru erraz bihur daitekeena da, hala nola txanpon eta billeteak edo kontu korronteetako gordailuak, kutxazain automatiko edo banku bateko sukurtsal batean noiznahi eskura baitaitezke. Aktibo ez hain likido, berriz, diru bihurtzea zailagoak dira, hala nola enpresen akzioak, higiezinak, etab.; horiek saltzea edo diru bihurtzea erabaki denetik egiaz saldu edo diru bihurtu arte denbora-tarte bat igaro ohi da.
Neoliberalismoa ekonomia keynestarraren erantzun gisa sortu zen II. Mundu Gerraostean baina indartu, joan den mendeko zortzigarren hamarkadan indartu zen biziki.

NEOLIBERALISMOA

Ideologia ekonomiko honen oinarriak dira: merkatu librea, ekimen pribatua jarduera ekonomikoaren eremu guztietara hedatzea eta Estatuaren boterea mugatzea, Estatuak ekonomia kontuetan esku hartzeari dagokionez, batik bat. Horren ezaugarri nagusiak, liberalizaziora, pribatizaziora, desregulaziora eta zerga-politika murriztaileetara (zerga-maila apalak) zuzenduak dauden politika ekonomikoekin lotuak daude, orokorki.

ORDAINKETA-BALANTZA

Kontabilitateko dokumentu honetan, urtebetean eskuarki, herrialde baten eta munduko gainontzekoen arteko ondasun eta zerbitzuen merkataritzatik eta kapital-mugimenduetatik ondorioztaturiko eragiketak erregistratzen dira. Bai herrialdetik (ondasun edo zerbitzuak esportatzearren edo barne-finantza aktiboak saltzearen ondorioz kanpo-kapitalak sartzearren) jaso dituen sarrerak, bai (egin dituen inportazioen ondorioz edo, kanpo-aktiboak erostearren izaniko kapitalen irteeren ondorioz) herrialde horrek egin dituen ordainketak kontabilizatzen dira bertan eta bataren eta bestearen arteko aldea edo saldoa agertzen da. Ordainketa-balantzan sartzen dira kontu korrontea, kapital-kontua, finantza-kontua eta akats eta omisioen kontua. Kontu korrontean, berriz, balantza komertziala, zerbitzuen balantza, errenten balantza eta transferentzien balantza sartzen dira.

PASIBOA

Jarduerak betetzeko enpresak dauzkan finantza-baliabideen multzoa. Galdagarritasun mailaren arabera (horiek itzultzea ba ote dagoen galdatzea edo exijitzea, alegia) sailkatzen dira pasiboak. Baliabideak enpresako jabeenak diren edo enpresak kanpoko hirugarrengo pertsonenak diren bereizi behar da, galdagarritasuna aintzat hartzeko. Pasiboan sartzen dira, besteak beste, funts propioak, akzioak, bazkideen ekarpenak, diru-laguntzak, emakidak, epe labur eta luzeko zorrak, hartzekodun komertzialei egin beharreko ordainketak, etab.

PRODUKZIOAREN ZATIKATZEA

Ondasun edo zerbitzu baten faseak bereiztean datza prozesu hau. Bereizketa horrek, eskuarki, fase horietako bakoitza egiteko espaziorik egokientzat jotzen den horretan kokatzea ondorioztatzen du (kostu-estruktura eta baldintzen arabera, kasuan kasuko produkzioa aintzat harturik). Horregatik, kontzeptu hau eta enpresen globalizazio eta deslokalizazio fenomenoak hertsiki lotzen dira.
Prozesu hau hertsiki loturik dago komunikazio moduen eta garraioen berrikuntzen garapenarekin, horiei esker egiten diren konexio eta gorpuzten diren harremanetan urruntasun geografikoak garrantzia galtzen du, ekonomia eta denbora alorretan kostuak apal-apalak izaten direlako.

XURGATZEA

Enpresa-biltze edo bat egite horretan, haietako batek beste guztien gainetiko posizioa hartzen du, bere nortasun juridikoari helduta; gainerakoak, berriz, praktikan disolbatu eta enpresa nagusian integratuko dira. Horrelako enpresa-fusioak xurgaturiko enpresak jarrera hegemonikoan dagoen xurgatzaileari eskubideak, pasiboak eta aktiboak pasatzea ondorioztatzen du.